



ANAITASUNA

AÑO II—Núm. 17

Suplemento a la Hoja
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Noviembre 1954

Aita Santua ta Ama Birgiñea

Urriaren amabian, Espaiña osoa, Zaragozan batuta, Andra Mariaren Biotzari konsagrau jako. Eta ori dala-ta, Aita Santuak radioz berba egin deusku.

Bere berbaldi zoragarrian, aspal-diko gizaldietan Ama Birgiñeari euki deusagun maitasuna gomufarazo ostean, aurrerantzean-bere Andra Mariaren maitatzaille sutsuak izateko bidea erakutsi deusku. Eta berba egiten eban bitartean, Bizkaitarrok gogoan euki gaitu, Begoñako eleizea Espaiñaiko ospetsuenen artean aitatu dau-ta.

Euskaldun asko—eta euren artean Bizkaitar asko—batu zirean egun orretan Aragoiko uri nagusian, guztion izenean Andra Mariari Konsagraziño ori egiteko.

"Izan-bere, bidezkoa zan—dirausku Aita Santuak—Ama Birgiñeari gure maitasuna erakustea, Jainkoaren aurrean ain ederra eta gizonentzako ain errukiz betea da-ta."

Mesede aundiak egin deuskuz, egin-bere, Andra Mariak. Arakatu daigun gure historia, eta edonun ikusiko dogu Ama Birgiñea. Gogoratu daiguzan aintxiñako denporak; sartu gaituzan aintxiñako Naparren baso illunetan barruna, eta ain zuzen-bere irugarren gizaldian Zaragozatic bertatik etorri jakun Euskalerrira, Kalahorrako bidean zear, Kristiñau Fedearen argi salbagillea. Eta urrenko gizaldietan, gaurko egunerarte, An-

dra Maria izan da gure arriaren Zaindaria.

Eta aurrerantzean-be, Bera izango da gure Jagolea. Baiña orretarako, auxe eskatuten deusku: otoitzaren eta penitentiaren bitartez bere maitasunari erantzun deiogula.

"Erantzun deiogun ba, Aita Santuak dirauskun legez, Andra Mariaren deiari. Agindu deiogun gure zeruko Amari, egunean baiño egunean kristiñau sutsuagoak, sakonagoak eta zintzoagoak izango gareala. Agindu deiogun, ekandu garbien bitartez gure erriaren izen ona zainduko dogula. Agindu deiogun, munduan zabal dabilzan idea ta asmo kaltegarrieri sekula jaramonik egingo ez deutsegula. Agindu deiogun, gure familien sendotasuna gordeko dogula; familien santutasuna barik, gizonen arteko bizitzeak bere zimenturik beñiena galduko leuke-ta.

"Agindu deiogun Ama Birgiñari, atseginen gurari larregia epelduko dogula. Munduko ondasunen zaletasun geiegia gure biotzetarik aldenduko dogula; zaletasun orrek, benenu gaizto baten antzera, gure arimako indar guztiak ezereztu leikez-da. Agindu deiogun, gure anaiak maitatuko ditugula; gure anai guztiak, batez-bere pobreak eta beartsuak, gure lujuagaz eta gure bizimodu nabarmenagaz ainbeste bidar ofendidu doguzanak. Eta Bera, Ama Birgiñea, orain arte legez, aurrerantzean-bere, gure Zaindari apartekoa izango da."



KONFESIÑOKO SAKRAMENTUA

Faltsoa ala egia da emen diñoguna?

6.—Urlia pekataria, pekatu mortal batzukaz bakarrik damututa dago. Beste pekatu mortalakaitik, ostera, ez deutso ardura. Olako damutasuna ez da naikoa, Konfesiñoako Sakramentua ondo artzeko.

7.—Sandia pekatariak, pekatu astunen damutasuna bakarrik dauko. Pekatu ariñen damutasunari, barriz, ez deutso jaramonik egiten. Orrelako damutasunaz konfesetan bada, Penitentziako Sakramentuak ez deutso pekatu bapere parkatuko.

8.—Berendia pekataria, pekatu mortal bategaz guztiz damuturik dago; baiña alan ta guzti-bere, ia ia seguru dago pekatu orretan goiz edo berandu barrero jausiko dala. Persona ori, uste orregaz, ezin leiteke ondo autortu, Konfesiño ona egiteko bear dan estadian ez dagoalako.

9.—Pekatu astunean jausteko arrisku aundi bat — al dodala — itxi gura ez badot, nire Konfesiñoa txarra izango da.

10.—Persona bat ilteko arriskuan dagoanean, edozein sazerdotek entzun leike aren Konfesiñoa eta emon leikio benetako asolbaziñoa.

(Erantzupenak azkenengo orrialdean)

* * *

"Bat eginda errezetan daben familia, beti bat eginda biziko da."

Aita Peyton

"Ze gauza zoragarria, gaubean, lana amaituta gero, familia osoa batuta, Errosario Santua errezeteal

Pio Amabigarrena

Esaidazu!

Zenbat denpora irauten dabe Purgatorioko penak?

"Erreka bat igaro gura dabenak, geiago edo gitxiago tardetan dau beste aldera joaten, beragaz daroan kargea zelakoa dan. Alantxe, Purgatorioko ibaia igaroten dabilzan arimak-bere, geiago edo gitxiago tardetan dabe Paradisuko aldera eltzen, euren pekatuen pixua zelakoa dan."

(San Agustiñek)

* * *

Bere ama Santa Monika il zanetik ogetamar urte igarota gero-be otoitz egiten eban San Agustiñek aren arimearen alde; eta bere laguneri-be, oraziñoak eskatuten eutsezan, Santa Monikak bere illobian millagro asko egin arren.

* * *

Sor Frantziska Sakramentukoari, sarritan agertzen jakozan Purgatorioko arimak, euren pena luzeakaitik kejaz. Ogetamar urte erioiazala esan eutsan bein gizon baten arimeak, munduan aberastasuna larregi maite izan ebalako; eta, zoritxarrez, bere etxeakoak, bere ondasun guztiak artuta gero, beragaz aztuta egozala.

Bein, Jesukristo bera agertu jakon, eta onelan berba egin eutsan: "Begitu zelan ordaindu bear dituen Purgatorioko arimak euren pekatuak. Pena aundia emoten deuste, ainbeste sufrituten ikusten dodazanean; baiña alantxe izan bear. Ondo egiten dozu euren alde errezatuaz. Neugaitik egingo bazenduz legez entzuten dituz zure otoitzak, eta Purgatoriotik ni neu atarako baninduzu legez poztuten naiz"

PURGATORIOKO SARIA

Parisen, 1817'an, serbitzuko nes-kato bat bizi zan, Purgatorioko ari-men alde mezak atarateko oitura ona eukona.

Bein, gaixotu egin zan; eta ori dala-ta, etxea itxi bear izan eban eta kalzan diru barik geratu.

Ospitaletik urten ebanean, iñora orduko eleizara joan zan, Jainkoari eskerrak emoten. Orduan, gomutau egin zan il aretan arimen alde mezarik ez ebalata; eta diru pizka bat baiño ez eukola-ta, apur baten dudan egon zan; baiña azkenean, diru axebere arimen alde emoteko erabagia artu eban. Emon eutsan, ba, eleizako abade bateri, urrengo egunean mezea arimakaitik esateko.

Eleizatik urtekeran, mutil gazte jaseko bat topau eban. "Nunedonun bear egin gura badozu —esan eutsan gazteak—, zoaz ain etxetara, ta areanbere abegi onez artuko zaitue." Eta au esanda beste barik, urrundu egin zan.

Joan zan neskatoa etxe aretara; eskatu eban bertan lan egitea; agertu eutsan agazabandreaki mutil gazteak esan eutsana; eta arritu zan ugazabandrea, ain zuzen-bere etxeko nes-katoa orduantxe bertan despedidu eban-da.

Alan berbetan egozala, besteak kuadru bat ikusi eban orman eskegi-ta, eta guztiz arriturik esan eutsan ugazabandreaki:

— Andrea, mutil gazte aorrexek zuzendu nau etxe onetara.

— Ez da izango egia — erantzun eutsan andreak —. Ori, neure semea da, orain urte bi il zana.

Eta onelan, argi argiro ezagutu eben zelan saritu gura izan eban Jainkoak neskatoa, Purgatorioko ari-makaz euki eban-errukiagaitik.

Katolikoan arerio itzala zan Ni-kolas I (1796-1856), Rusiako Enpera-dorea. 1843'garren urtean, berreun ta berrogetabost monja sartu zituan kartzelan. Sardiña zar erdi baiño ez eutseen emoten egunean, egarriaren tormentuaz erlegiño katolikoa itxi eragiteko.

Euren estamanguak, egarriaren egarriaz, laba batzuk zirean; eta mii-ñak, arrakalatuten asi jakezan.

Egokera onetan, Purgatorioko a-rimakaz gomutau zirean, eta euren alde eskiñi eben ain ikaragarritzko egarria. Gauza miragarria: arrezkero ez eben sentidu ez egarririk ez edo-zein tormenturik.

Arik zortzi egunera, kartzelatik urtendakoan, ez eben euki zetan joan ur edatera, ez zan iñor egarri-ta. Au ikusirik, zurtz eginda geratu zirean danak.

Monjen Nagusiak berak kontau eutsan gero guztia Aita Santu Pio Bederatzigarrenari.



(Bigarren orrialdetik dator)

6.—Egia. Konfesiño on bat egiteko, pekatu mortal guztien damutatsuna euki bear da.

7.—Faltsoa. Pekatu ariñak, Jainkoaren ofentsak izan arren, ez deuskue Jainkoaren adiskidetasuna kentzen. Orregaitik, Sandia pekatariak, pekatu ariñen damu barik-be, artu leike ondo Konfesiñoko Sakramentua, eta jaritxi grazia santifikatzailea; baiña ezin leike lortu pekatu ariñen parkamena.

8.—Faltsoa. Berendia pekatariak, pekatuan osterabere jausiko dalakoan egon arren, Penitentziako Sakramentua ondo artu leike. Geiago ez deusa Jainkoak eskatuten, baldin konfesiñoko momentuan geiago pekatu ez egiteko eta pekatu bideak ixteko prest badago.

9.—Egia. Konfesiñoa ona izateko, bear bearrekoa da pekatuen damua. Eta damu ori benetakoa izateko, naitanaiezkoda da "geiago pekatu ez egiteko asmo sendoa." Eta zelan eukiko dau, ba, asmo ori, pekatu astuanean jausteko okasiño larria, berak al dabela, itxi gura ez dabenak?

10.—Egia.

Orritxu onen gauza guztietarako
eskribidu zuzenbide onegaz:

R. P. Administrador de ANAITASUNA
PP. Franciscanos
FORUA (Viz.)

"Familien benetako bizitzea, arimen bizitzearen antzera, Jainkoari egiten deusagun otoitzaren bitartez etorten da. Eta orretarako biderik onena, Errosario Santua da."

Pio Amabigarrenak



KURUTZEGRAMA N.º 13

	1	2	3	4	5	6	7	8
I								
II								
III								
IV								
V								
VI								
VII								
VIII								

Ezkerretik eskumaldera: 1. Eurak ibilli orain.—2. Zentzuna kentzeko, operaziño denporan gaixoeri emoten jake. Ganaduarentzako azpigarria egiteko.—3. Kosetxa, euskera garbían. Prononbre interrogatiboa (atzekoz aurrera).—4. Numerua. Prononbre personala.—5. Konsonante letrea. Prononbre personala (atzekoz aurrera).—6. Narruzko lokarria. Mundura ekarri ginduzana.—7. Zu izan orain. Pifiuaren euskera garbizko izena.—8. Pelotari baten apilledua. Bokal letrea

Goitik beera: 1. Zuk guri orain zerbait egiten.—2. Aurrearen kontrakoa. Sua.—3. Denpora guztian. Leku aretara.—4. Josteko erabilten dogu (atzekoz aurrera). Bearra.—5. Konsonante letrea. Konsonante letrea.—6. Lekua. Mahomatarrak Jainkoari emoten deitsoen izena.—7. Beroaren kontrakoa (atzekoz aurrera). Gizona, txikia danean.—8. Leku aretan. Gu orain izan.

AZALPENA. Ezkerretik eskumaldera: 1. Dabiltz.—2. Eter. Ota.—3. Uztar. Nok.—4. Set. I.—5. K. Gu.—6. Ugal. Ama.—7. Zera. Ler.—8. Uranga. A. Goitik beera: 1. Densku. zuz.—2. Aize. Gar.—3. Beth. Ara.—4. Art. Lan.—5. L. G.—6. Toki. Ala.—7. Oiz. Ume.—8. An. Gara.